


Iritsi da hotza, eta hasiak dira hartzak negua pasatzeko babes bila.

Haitzulo bat izaten dute aterpe, eskuarki, eta goroldioz eta belar lehorrez estaliko dute, goxo-goxo.

Elurteak hasi baino lehen sartuko dira hartzak babeslekuan, elurretan oinatzik ez uzteko. Izan ere, bestela, etsaiak atzetik joango zaizkie.

Gero… lo egingo dute. Hilabete batzuk emango dituzte lo, ezer ere jan gabe.

Udaberria iritsitakoan, hartzak babeslekutik argal-argal eginda irten eta ohiko bizimoduari ekingo diote: bapo jan eta edan, sarri-sarri bainatu eta, ahal duten guztietan, lo kuluxka egingo dute…

Hartzak oso lotiak dira!

LIVEWORKSHEETS

1. Zein urtaroan egoten dira hartzak babeslekuan?

☐ udaberrian ☐ udan ☐ neguan ☐ udazkenean

2. Osatu:

Hartzak …….. sartuko dira babeslekuan, …….. oinatzik ez uzteko

elurretan	Elurteak hasi baino lehenago

3. Idatzi E egia bada eta G gezurra bada.

…….. Haur guztiek lo egiteko pelutxezko hartzak dituztelako, hartzak oso lotiak dira.

…….. Hartzek hilabete batzuk ematen dituzte lo, ezer ere jan gabe.

…….. Hartzek hilabete batzuk ematen dituzte jaten, lorik egin gabe.

…….. Hartzek hilabete batzuk ematen dute jaten eta lo egiten.

LIVEWORKSHEETS

4. Zein urtaroan irteten dira hartzak babeslekutik?

☐ udaberrian ☐ udan ☐ neguan ☐ udazkenean

5. Zer egiten dute hartzek babeslekutik irtendakoan? Marka ezazu erantzun egokia.

- Ur asko edan.
- Gutxi-gutxi jan.
- Lorik egin ez.
- Sarri-sarri bainatu.

LIVEWORKSHEETS